



COVID-19aren AURREAN OINARRIZKO PRINTZPIOAK HIGIENA ETA OSASUNA BULTZATZEKO KONTU OROKORRAK

Hezkuntza-komunitateko kide guztien erantzukizuna eskatzen du kutsatze-arriskuak minimizatzeko.

1. KONTAKTUAK MUGATZEA

- Sarrera mailakatua izango da
- Ate bi erabiliko ditugu sarrera eta irteerentzat
- Bi jolas ordu LHkoekin batera ez egoteko
- Ikasturte hasierako bilerak taldeka egin, ez ditugu egingo mailaka ohi dugun bezala.

2. HIGIENE NEURRIAK

- Maskarak** Maskara erabiliko da,
- Eskuen higiena**. Urarekin eta xaboiarekin egin daiteke, baita soluzio hidro -alkoholikoekin ere. Eskura egongo dira ikastetxearen hainbat lekutan.

3. KASUEN KUDEAKETA.GAIXOTASUNAREN SINTOMAK ANTZEMANEZ GERO

COVID-19arekin bateragarriak diren sintomak dituzten ikasle, irakasle edo langileak, isolatuta edo berrogeialdian dagoen lagun oro ere, ez dira eskolara bertaratuko.

Beren etxeko norbaitek COVID-19aren diagnostikoa jaso badu, gurasoek edo tutoreek horren berri emango diete eskolako agintariari eta seme edo alaba etxean mantendu beharko dute.

Sintoma hauek dituztenak: 37 gradutik gorako sukarra, eztul idorra, eztarriko mina, arnasa hartzeko zailtasuna, usainik edo dastamenik ez izatea etxean gelditu behar dira eta beren osasun-zentrora deitu beharko dute.

Gaitzaren sintomak antzemanaz gero (sukarra, eztula, arnasa hartzeko zailtasuna...), eskolak seme-alaba jasotzea eskatuko dio familiari . Familiak osasun-zentrora deitu beharko du eta bertan aztertuko da ikaslearen egoera. Balorazioa izan arte, pertsona hori isolatuta mantenduko da.

3 agertoki aurreikusi ditugu:

1 AGERTOKIA ikasturte hasierakoa. Aurrez aurreko irakaskuntza

Jantokia eta garraioa: Ez luke aldaketa garrantzitsurik eragingo ohiko ikasturte-hasierari dagokionez,

- Jantoki-zerbitzuak normaltasunez funtzionatuko du.
- Jantokiko mahai alternoak erabiliko dira eta leku batetik bestera leku bat libre geratuko da.
- Eskola-garraio kolektiboan nahitaez maskara erabili beharko da.

Beste jarduera batzuk (bilerak, ekintza osagarriak)

- Familiekin telefonoz, posta elektronikoz, EINIKA, mezuz edo posta arruntez harremanetan jartzea lehenetsiko da.
- Ikasleekin lehen eguneko bilera tutorearekin egingo da ikasgelan. Ez ditugu mailaka aretoan bilduko.
- Familiekin ez da bilera orokorrik egingo. Tutoreekin egingo da ikasgelan 1 eta 3. mailak egun batean eta 2. eta 4. mailakoak beste egun batean. Egutegian islatuko dugu.
- Aldagelak itxita egongo dira eta Hezkuntza Fisikoko saioak ordu batekoak izango dira (astean bi)
- Hezkuntzako Sailburuordearen ikasturte honetako ebazpenean zera esaten du: "Egungo egoeran ez da aurre-ikusten ikastetxetik kanpo gaua ematea dakarren jarduerarik."



2.AGERTOKIA aurrez aurreko jarduera eta jarduera telematikoa txandakatu eta aldi berean egin ahal izateko.

Aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko zaie ikasle guztiei. Ikasleen zati baten bertaratzea lehenetsi beharko balitz, ikaslerik zaugarrienen edota zailtasunik gehien dutenen presentzialtasunari ere eutsiko zaio. Orientatzailea eta tutoreen artean identifikatuko dituzte ikasle hauek ikasturte hasieran. Horrez gain familiaren batek eskaera arrazoitua egiten badu aztertuko da kasua.

- Ikasgela bakoitzean 15eko taldeak osatuko dira. Ikasle batzuk finkoak izango dira (zaugarriena eta zailtasunak dituztenak) eta besteak txandakatuko dira egun alternoetan errotazio sistema baten bidez.
- Online modalitatean dauden ikasleek, telematikoki, eskola presentziala gainerako ikaskideekin batera jarraitu ahal izateko. Classrooma erabiliko da.

Jantokia eta garraioa:

- Jantoki-zerbitzurako sarbidea hezkuntza- edo gizarte-egoera bereziki ahulean dauden eta ikastetxeko zuzendaritzak familien premia-irizpideen arabera ezartzen dituen ikasleentzat baino ez da izango.
- Eskola-garraioa zerbitzua behar duten ikasleei arreta emateko moduan egokituko da. Besteak, garraioak ez direnak etxera joan beharko dira bazkaltzera.

Beste jarduera batzuk (bilerak)

- Telematikoki egitea lehenetsiko da.
- Familiak eskola eraikinean sartu ahalko dira, beharrik egonez gero edo irakasleek edo zuzendaritza-taldeak hala eskatuz gero eta hartu beharreko neurriak hartuta.

3.AGERTOKIA konfinamendua eta ikasgelaz kanpoko hezkuntza-jarduera ekarriko ditu.

Ordutegiak eta malguketa

- Telematikoki konektatzeko ordutegi batzuk ezartzea komeni da, hezkuntza-jardueraren erritmoari eta jarraipenari eusteko.
- Ikasturteko ohiko ordutegia jarraituko da, HAUSPOA barne.
- Arlo bakoitzean gutxienez astean klase bat meet bidez gauzatuko da.

Beste jarduera batzuk (bilerak)

- Familiekin telefonoz, posta elektronikoz, EINIKA, mezuz edo posta arruntez harremanetan jartzea lehenetsiko da, eta kudeaketa telematikoak egiteko bide emango da.